

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3669

*658/2018 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Ane Miren Lasa Arizketa andrea kentzen baita Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostutik.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 445/2014 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 6ko EHAA, 83. zk.), Ane Miren Lasa Arizketa andrea Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatua izan zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ane Miren Lasa Arizketa andrea Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2018ko uztailaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 25a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.